

Dirua lortzeko ukendua

Osagaiak:

- Lehendakari baten listua.
- Zaldi baten 30 kilo kaka.
- 120 urte dituen pertsona batek txikitan erabiltzen zuen arkatza.
- Marrazo baten 100 hortz.
- Zuhaitz handienaren hosto guztiak.

Hau dena igerilekuan sartu behar duzu eta gero zeu ere sartu. 24 orduz barruan egon behar duzu eta gero bi zurrutada handi eman behar dituzu.

Ondoren hau abestu:

Saltsa maite
Saltsa nire
Bihurtu hau dena
Niretzat urre.

Hori esaterakoan minutu batez begiak itxi eta irekitakoan igerilekuan dirua izango da.

Odei Perez

